



Sagardo egileek edariaren inguruan hainbat iharduera egiteko apropos

Museo bat, bi proiektu

izango den Sagardo Etxe bat aurrera atera nahi dute

URTEZ urte sagardo denboraldiak bizi duen arrakasta ikusita, edari honen inguruan zentru bat sortzeko ideia gorpuztuz doa. Gipuzkoako Sagardogileen Elkar-
tea eta Taldea, sagar zuku hau egitera dedikatzen diren bi taldeek, Sagardo Etxe hau martxan jartzeko mahai gainean bi proposamen izatea espero dute hil honetan bertan egin nahi duten bilera-rako. Bata, Urnietako Udalarena eta bestea Astigarragako Udalarena. Bi proiektuak begien aurrean dituztenean, beraiek izango dira azken hitza esan beharko dutenak edari tradizional honen inguruko zentru baten sorrerari buruz. Erakundeek ere, bere aldetik, agertu

dute Sagardo Etxea egiteko interesa. Dena den, sektoreak bultzatutako in-
iziatiba izan beharko lukeela, argitu zuen Foru Aldundian Nekazaritza eta Inguru-
giroko diputatua den Iñaki Txuekak. Ho-
rrela, martxan jartzen den Sagardo Et-

xeak ez luke museo bat izatera mugatu behar, baizik eta beste hainbat osagai beharko lituzkeela instituzioen laguntza jasotzeko. Laborategia, liburutegia, ikastaroak emateko leku aproposa eta pomologia ikerketak egiteko lurra izan-
go lirateke hauek, besteak beste. Gipuz-
koako Sagardogileek ere garrantzia handia ematen diote sagar eta sagardo-
arekin ikertzeko leku apropos bat izate-
ari, José Angel Aginaga elkarteko presi-
dentearen esanetan.

Larraburun kokatua

Sagardoetxe bat sortzeko ideia, dena den, ez da oraingoa. «Orain dela zortzi edo bederatzita urte, larogeitamarreko hamarkadaren hasieran, guk egin genuen proposamena», dio Joxi Lizeaga Urnietako alkateak, «baina, nahiz eta bere egunean komunikabideek jaso zuten, bertan behera gelditu zen, gauzat-
zera iritsi gabe». Ordundik hona bazter-
tuta egon da proiektua baina 97an sa-
gardogileek berriz ere zerbait egiteko nahia azaldu zuten eta hala adierazi zio-
ten Lizeagari. «Momentu honetan», dio José Angel Aginagak, «Urnietako Udala-
ren proiektua zein den ezagutzen dugu, baina Astigarragakoa heltzeko zai gau-
de».

Mikel Zabala, Astigarragako alkateak, berak zuzentzen duen udalaren propo-
samena zein den azaltzen du. «Gure as-
moa edifizio integral bat prestatzea da, sektoreak behar duen ekipamendua izango lukeena. Kurtzillo gela, areto ba-
liaoiztuna, liburutegia, laborategia eta museoa. Pomologia arloan, hamabost


bat mila metro karratu inguruko lur azal bat egongo litzateke zuhaitzak landatzeko, Larburun, eta guztira 20.000 metro karratuko konplexu bat lortuko genuke, aparkalekua ere izango lukeena». Astigarragako alkatearen esanetan, badira hamar urte sektoreari bere eskaerak zeintzuk diren markatu eta inizatibak hartu behar dituztela esaten diotela, eta horregatik, une honetan egiten ari direna mahai gainean proposamen konkretu bat jartzea da, bere erantzuna zein den ikusteko.

Astigarragako Udalaren proposamenaren arduradunak Asturias aldean dagoen Sagardo Etxean izan dira bertako funtzionamendua zer nolakoa den ikusteko. «Asturiaseko zentrua bitan banatua dago. Nava izeneko herrian museoa dago, eta beste batean, Villaviciosan, pomologia aldeari dagozkion instalakuntzak», argitzen du Zabalak.

Egin daitekeenaren aurrerapen gisa, Astigarragako Udalak erakusketa probisional prestatu du abendua eta urtarrilean, eta bertako elementuak eta beste berri batzuk hartuta, kulturtxearen anexo batetan erakusketa zabalago bat osatu nahi du, urtean zehar ikusgai egongo duena.


Urnietako alkatetzak, bestalde, abenduan bidali zion Gipuzkoako Sagardogile Elkarteari bere proposamena. Bertan, Sagardoetxea martxan jartzeko aurregitasmoa azaltzen zion, «Gipuzkoako herrialdean gorakada nabarmena bizitzen ari den sagardoaren sektoreari adierazgarritasuna emateko». 10.000 metro karratuko azalera izango luke Urnietako Sagardoetxeak, herriko hirigune ondoan dagoen baserri bati museoa erantsiko litzaiokeelarik.

Sagardoetxe honetan ere sagarrondo ezberdinak lantzeko zona bat egongo litzateke, pomologia lantzekoa alegia, eta elkarloturiko bi edificzio. Lehenengoan sarreragela, komunak, bulegoak, laborategia, bileragela eta sagardotegi funtzioa beteko lukeen 200 metro karratuko areto bat egongo lirateke. «Sagardogileek erabaki beharko lukete gero honen banaketa, baina printzipioz ardo bodegatan egoten den moduko zerbaitea da ideia. Bezeroak hara joan, mahai batzuk jarri eta sagardo ezberdinak dastatzeko leku aproposa izango litzateke



hau», azaltzen du Urnietako alkateak.

Bigarren edificzioa museoa eta liburutegiaren kokapena litzateke. «Liburutegian sagardogintzaren inguruko dokumentu eta liburuak egongo lirateke, eta museoan aldiz, sagardogintzaren alderdi eta fase ezberdin guztiekin zerikusia duten tresna motak».



DISEÑO GRAFICO

943 45 59 80

TODO TIPO DE IMPRESOS

- Tarjetas
- Folletos
- Carteles
- Papelería...



txotx mundiala !

102 Meaka Auzoa - 20304 IRUN

Tel. 943.623.130